

Zigoitia

Herri Programa

2023 – 2027 LEGEALDIA



2023KO UDABERRIA

ehbildu

Aurkibidea

1. Testuingurua.....	3
2. Gure taldea.....	5
3. Gizarte politikak eta zaintzak.....	6
4. Etxebizitza.....	7
5. Kirola, Kultura, Euskara eta Ondare Historikoa.....	8
6. Mugikortasuna eta ingurumena.....	10
7. Gobernantza.....	12
8. Enplegua.....	13

ehbildu

TESTUINGURUA

2019ko ekainean, **oposizio eraikitzailea** egiteko konpromisoa hartu genuen, eta emandako hitza bete dugula uste dugu. Legegintzaldi osoan proposamen zehatzak aurkeztu ditugu, egingarriak eta gure programarekin eta gure udalerrirako komenigarriena denarekin koherenteak.

Erakundean **euskararen erabilera** bultzatzen eta borroka feministaren inguruan hartutako akordioak aberasten saiatu gara.

Iraunkortasunari dagokionez, legegintzaldi honetan, gure ekimenez, **Klima Aldaketaren Aurkako Plana** egin da.

Gobernantzaren esparruan, elkarteei, enpresei, administrazio-batzarrei eta, oro har, herritarrei elkarriketa zuzena eskaini dien gobernu-talde batekin egin dugu topo, baina, ahal izan duten neurrian, **atzeratu eta saihestu egin dute** kontzejuen kontseiluaren, kultura-kontseiluaren eta beste foro batzuen **parte-hartzea** eta eztabaida.

Hau da, eskatu zaien laguntza eman dute, baina ez dute aldarrikapen komunak edo eragileen arteko bestelako lankidetzak erator zitezkeen eztabaida-fororik ireki nahi izan.

Zerbitzu publikoei dagokienez, lortu ahal izan ditugun akordioak EAJ-k eta PSE-k Jaurilaritzan edo Aldundian egiten duten kudeaketa zalantzan jartzen ez duten gaietan izan dira. **Ezinezkoa izan da adostasunik lortzea** gizarte-zerbitzuen kudeaketa, osasun-zentroko laguntza eta abar hobetzeko.

Eta, amaitzeko, **Bengolarrako eraberritzea** dugu. Proiektua **degeneratzen joan da**, eta ez dakigu zein izango den azken kostua, ezta noiz amaituko den ere, baina momentuz udal langile guztien ahalegina eta arreta bereganatzen ari da, hura finantzatzeko ahalik eta diru-laguntza gehien lortzeko.

Atzean geratu da taberna zaharra berria egiten zen bitartean irekita mantentzeko asmoa, obrari bi fasetan ekinez, udalerriko bizitza soziala hiltzen ez uzteko. **Ez dira saiatu ere egin.**

ehbildu

Eta, horrela, **gero eta bizitza sozial eskasagoa duen udalerri baten aurrean gaude** eta gure belaunaldi gaztea beste udalerri batzuetara joaten ari da. Oso kezkatuta gaude; gaur egun gazteen aisialdiagatik eta gerora, udalerrian dugun etxebizitza-arazoagatik.

Arrazoi horiengatik guztiengatik egoera honi ilusioz baina erantzukizunez aurre egitea beharrezkoa dela uste dugu. Gure **inplikazioa ezinbestekoa da** gure egunerokotasuna hobetuko duten erabakiak hartzeko eta adinekoek, gazteek, nerabeek eta txikiek bizi eta gozatutako udalerria lortzeko.

Hori izan zen urtarrilean gure gonbidapena onartu zuten pertsona ugarirekin partekatu genuen testuingurua. **Eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei**, kezkatzen gaituzten arazoei buruz hausnartzeko sortu ziren taldeetan egindako ekarpenengatik. Aste batzuk geroago, guztion artean, nahi dugun Zigoitia lortzeko neurriak dituen proiektu bat adostu genuen. **Maite duzun Zigoitia. Orain bai.**

GURE TALDEA



Edu Lorza García
Soinu Teknikaria
Murua



Ainhoa Fernández Domínguez
Delineatzaile industrial
Ondategi.



Xabi Nafarrate Cadiñanos
Irakaslea
Etxaguen



Mikel Isasmendi Txurruka
Suhiltzailea
Ondategi



Maialen Bergara Sz.de Cámara
Erizaina
San Pedro



Gorka Fernández Domínguez
AFA-n langilea
Gopegi



Itxaso Etxebarria Astondoa
Gasteizko udal langilea
Ondategi



Aitor Lizarralde Lezana
Telebista operadorea
Ondategi



Amaia Fernández Sáenz de Buruaga
Irakaslea
Gopegi



Niko Xamardo González
Irakasle honorifikoa EHUn
Berrikano



Askoa Urzelai Bengoetxea
Lorezaina
Akosta



Mikel Las Heras Mtz. De la Pera
Arkitekto Teknikoa
Etxabarri Ibiña



Miren Aginako Pascual
Farmazia Teknikari jubilatua
Buruaga



Oscar Alonso López de Letona
Autonomia
Zaitegi



Pilar Pérez de Obanos Oyarbide
Erizaina
Etxaguen

GIZARTE POLITIKAK ETA ZAINTZAK

Zaintza komunitarioen sustapenak herritarren ongizatearen ardatza izan behar du. Hauek dira gure udalerriko zaintzak hobetzeko proposatzen ditugun neurriak:

Adineko pertsonak edo/eta menpekotasun egoeran daudenak:

- Zaintza integralerako programa bat bultzatuko dugu, adinekoak eta menpekotasun egoeran dauden pertsonak beren etxebizitzetan ahalik eta denbora gehien beren kabuz bizitzeko aukera izan dezaten.

Horretarako, osasun-zentrora joateko lagunduko ditugu, behar izanez gero etxez-etxeko janaria eta nahi ez den bakardadearen aurkako alternatibak bilatuko ditugu, gizarte-zerbitzuekin eta gainerako erakunde eskudunekin lankidetzan.

- Horrez gain, Gorbeialdeko egoitza publiko baten aldeko apostua mantenduko dugu.

Osasun Zerbitzuak:

- Podologia zerbitzua eta arreta psikologikoa erraztuko ditugu, osasun zentroarekin lankidetzan. Halaber, hezkuntza zentroekin lankidetzan, laguntza psikopedagogikoa erraztuko zaie behar duten ume, nerabe eta gazteei.
- Zigoitian pediatria eta geriatria zerbitzuak ezartzeko beharra eta/edo erreferentziako lehen mailako arretako zentrora garraio publikoa errazteko beharra aldarrikatuko dugu Osakidetzaaren aurrean.

ETXEBIZITZA

EH Bildu Zigoitiak etxebizitza eskubide gisa aldarrikatu nahi du, ez pribilegio gisa, ezta negozio gisa ere. Premiazkoa da alokairu sozialeko etxebizitza-parke bat izatea, gazteen eta etxebizitza eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonen premia asetzeko. Horretarako, udalerriko etxebizitza-premiari buruzko diagnostiko bat eta plan estrategiko bat egingo dugu, honako hauek bilduko dituenak:

- Muruan alokairuko BOEak eraikitzea eta Bengolarrako eraikinean dagoen etxebizitzaren alokairu soziala.
- Zigoitian etxebizitza alokatzeko laguntzak, gazteentzat edo eskubide hori eskuratzeko zailtasunak dituztenentzat.
- Lehen etxebizitzarako edo alokairu sozialerako erabiltzeko eraikinak edo etxebizitzak birgaitzeko laguntzak.
- Hobari fiskalak beren etxebizitzak edo haien zati bat alokairu sozialera bideratzen dituzten pertsonentzat.

Gainera, Administrazio Batzarrekiko eta ondasun-erkidegoekiko lankidetzak sustatuko dugu, beren jabetzakoak diren eraikinak alokairu sozialerako eta bizikidetzako eta kontratazio beste eredu batzuetarako gaitzeko, hala nola co-housing proiektuak, alokairu sozialerako erabilera-lagapena, hiri-masoberiako kontratuak, etab.

KIROLA, KULTURA, EUSKARA ETA ONDARE HISTORIKOA

Gizartetxea gutxi erabiltzen da. Ludoteka eta elkargunea askotan hutsik daude. Jenderik gabeko jarduerak eta jarduerarik gabeko publikoak ditugu Zigoitian. Inauteriak, Olentzero eta beste ospakizun batzuk herritarrek era aktiboan parte hartzen zuten jai herrikoiak izatetik, utzikeria eta apatia transmititzen duten izapide hutsa izatera igaro dira.

Txiki, nerabe, gazte eta adinekoen ilusioa berpizteko eta Zigoitiko kirol, kultura eta gizarte-bizitzan parte hartzea berreskuratzeko honako neurri hauek proposatzen ditugu:

Hezkuntza:

- Herriko kultur eta kirol eskaintzan eta euskararen sustapenean hezkuntza eragile ezberdinekin harreman estua bultzatuko dugu, besteak beste, Gorbeia Eskola eta Musika Eskolarekin.

Kultura eta Kirola:

- Kultur eta kirol eskaintzaren inguruko hausnarketa bultzatuko dugu eta horretarako gustu eta zaletasunen inguruko inkesta bat egin eta gero prozesu parte hartzaile bat irekiko dugu kultur eskaintza anitza eta adin tarte ezberdinetara egokitua bultzatzeko.
- Gazteen adin tarte ezberdinen artean kudeatutako gaztetxe bat sortzeko bidelagunak izateko konpromezua hartzen dugu, euren ekimenak gauzatzeko aukera izan dezaten.
- Elkarre eta eragile ezberdinen partaidetza bultzatzeko Kultur-kontseiluaren bileren maiztasuna areagotuko dugu eta edozein herritarren ekarpenak jasoko dira bertan.
- Udalak antolatutako jai ezberdinetan herritarren antolaketa eta partaidetza bultzatuko da. Jaiak herritik egingo ditugu, herriarentzat.
- Kultur ekitaldietarako ekipamendua berritu eta osatuko dugu.

ehbildu

- Udal Erakunde Autonomo bat sortuko dugu Musika Eskola kudeatzeko eta, horrela, irakasleen lan-baldintzak eta jardueren finantzaketa hobetu.
- Gizartetxeko bizitza berpiztuko dugu. Azken boladan erabat lokartuta dagoen jarduera berrantolatuko dugu herritarren erabilera areagotzeko.
- Udalak dituen baliabideak optimizatuko ditugu familietan kontziliazioa eta erantzunkidetasuna errazteko eta, horrela, emakumeen parte-hartzea sustatzeko udal-eremu eta jarduera publiko zein pribatuetan.
- Partaidetza-prozesu bat abiatuko dugu, gure udalerriko beharretara egokitutako kirol-instalazio baterako proiektu bat aztertzeko. Proiektu hori iraunkorra izango da gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik.

Euskara:

- Euskararen erabilera zigoitiarron eguneroko bizitzan bultzatzea bilatuko dugu. Horretarako euskararen presentzia areagotuko dugu udalak antolatutako ekitaldi, jarduera eta eragile eta elkarte ezberdinekiko harremanetan. Talde euskalduna eta euskaltzalea gara eta hori gure jardueran islatuko da.
- Eskolarekin lankidetzan umeen eta familien eremuetan euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak antolatuko ditugu.
- Euskara sustatzeko partida handituko dugu.

Ondare historikoa:

- Zigoitiko ondare historiko, linguistiko eta kulturalaren arloko ikerketak sustatuko ditugu.

ENERGIA, MUGIKORTASUNA ETA INGURUMENA

Legegintzaldi hasieran, EH Bildu Zigoitiaren ekimenez, gure udalak Larrialdi Klimatikoaren adierazpena egin zuen, eta gure udalerriko Klima Aldaketaren Aurkako Plana jarri du abian. Bertan jasotzen diren neurriez gain, honako hauen aldeko apustua egingo dugu:

Energia:

- Energia sortzeko proiektuak erraztuko ditugu, energia-komunitateak garatzeari lehentasuna emanez. Kontzejuekin lankidetzan arituko gara bide horretan herrien burujabetza energetikoa sustatze aldera.
- Udal eraikinen energia beharrak ahalik eta modu autonomoenean beteko ditugu, horrek Udalaren ohiko gastua murriztea ahalbidetuko digu.
- Gure basoetako egurra lehengai moduan erabilita eraikin publikoak berotzeko zentralizatutako berogailu sare bat eratzea aztertuko dugu.

Mugikortasuna:

- Udalak Zigoitiko herritarren mugikortasuna errazteko eta merketzeko kotxea konpartitzeko aplikazio bat kontratatuko du eta horren erabilera bultzatuko du, gure CO2 isurketak murrizteko asmoz.
- Zigoitian mugikortasun iraunkorra garatuko dugu, ohitura osasungarrietan oinarritutako ereduak eta CO2 isuririk ez dutenak, adibidez bizikletaren erabilera bultzatuz. Horrekin batera garraio publikoaren sarea hobetzeko azterketa bat egingo dugu, Gorbeialdeako udalerrien arteko komunikazioa hobetzeko eta eraginkortzeko asmoarekin.
- Autokarabanentzako gunea sortuko dugu.

Ingurumena:

- Baso publikoen lurren kudeaketa hobetuko dugu, abere-zama optimizatze, abeltzaintzako ustiategi bakoitzeko bertako abelburuen kuotak kenduz. Roturo eta bazken erabilera arautzen duen ordenantza abeltzainekin elkarlanean eguneratuko ditugu.

ehbildu

- Nekazal lurrak interes espekulatiboen aurrean babestuko ditugu, nekazaritza eta abeltzaintza jardueren etorkizuna bermatzeko.
- Mendi Publikoa Antolatzeke Plana garatu eta jarraipena egingo dugu, baso-kudeaketa jasangarriko irizpideak sustatuz eta espezie autoktonoak landatzeari lehentasuna emanez.

Elikadura burujabetza eta ekoizpen jasangarria:

- Tokiko produktuen eta produktu agroekologikoen zuzeneko salmenta-merkatua berreskuratu eta babestuko dugu eta horrelako produktuen kontsumoa bultzatzeko ekimenak abian jarriko ditugu. Arreta berezia jarriko dugu eskolan, eguneko zentroan, etorkizuneko Bengolarrako taberna-jatetxean eta etxez etxeko janari-zerbitzuan.

GOBERNANTZA

Inolako neurri, proiektu edo estrategiarik ezin du arrakastarik izan herritarren, gizarte-sarearen eta gainerako toki-erakundearen parte-hartzerik eta lankidetzarik gabe. Sare horiek eta aipatutako eragile guztien arteko konplizitatea indartzea funtsezko helburua da programa hau aurrera ateratzeko. Horretarako, honako alderdi hauetan eragingo dugu:

Gobernantza:

- Kontzejuetako Administrazio Batzarrekiko harremana sendotuko dugu. Horretarako, areagotu egingo da Kontzejuen Kontseiluaren bileren maiztasuna eta informazio-trukea. Batzordeen arteko lankidetzaren sustatuko da, haien interesen aldeko sinergiak lortzeko.
- Udalak Administrazio Batzarren eta elkartearen jardueraren errazteko tresnak eskainiko ditu, besteak beste, egoitza elektronikoa erabiltzeko formakuntza eta teknikarien aholkularitza.
- Tokiko plataforma feministek planteatutako ekimenekin lerrokatuta era proaktiboan lan egingo dugu, eta emakumeen ahalduntzea, autodefentsa, kontzientziazioa eta indarkeria matxisten aurkako borroka sustatzeko neurrietan aurrera egingo dugu.
- Ekitaldiak antolatzeke udal baliabide, eraikin eta instalazioen erabilera errazteko protokolo bat eratuko da, norbanakoek, kontzejuak eta elkarteek horiek gauzatzeko irizpide argi eta zehatzak izan ditzaten.
- Udal araudi eta ordenantzetako aldaketetan prozesu partehartzaileak sustatuko dira eta kontzejuak eta elkarteak partaidetza bereziki zainduko da.
- Legeak ahalbidetzen duen neurrian udal prozedurak erraztu eta desburokratizatzen saiatuko gara.

ehbildu

Beste herriekiko harremanak:

- Euskal Herriaren burujabetza eta autodeterminazio eskubideak lortzeko bidean antolatutako ekimenetan parte hartze aktiboa izango dugu.
- Euskal preso eta iheslarien eskubideak aldarrikatzen jarraituko dugu etxean aske izan arte.
- La Vall d'en Bas udalarekin egindako senidetze-hitzarmenaren harira bi udalerrietako elkarteek eta pertsonen artean harremanak sustatuko ditugu, benetako senidetzea gauzatzeko.
- Beste herrialde batzuekiko gatazka, errealitate eta beharrei buruzko ezagutza maila hobetzeko elkarte eta eragile ezberdinekin lankidetzan arituko gara, gure herriko elkartasuna sustatzeko.
- Pertsona migratu eta errefuxiatu zaurgarrientzako harrera protokoloa eratuko dugu.

ENPLEGUA:

EH Bilduk konpromezu argia du kalitatezko enpleguarekin. Udalak bere ardurapeko plaza publikoak hobetzeko urratsak eman behar ditu. Horretarako aurrerapenak planteatzen ditugu honako eremu hauetan:

- Mantentze-lanetarako ofizial plaza baterako deialdia egingo dugu, zerbitzu horren estaldura eta zerbitzua betetzeko lan-baldintzen segurtasuna hobetzeko.
- Udalak eskaintzen dituen egiturazko zerbitzuak pixkanaka publikifikatzeko aukera aztertuko dugu, hala nola, udal eraikinen garbiketa, gizartetxearen kudeaketa...
- Urisoloko lonja librea jarduera hasteko lokal bat behar duten ekintzaileen eskura jarriko dugu.

ehbildu

ehbildu
ZIGOITIA